6308

EBAZPENA, 2008ko urriaren 27koa, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordearena, 2008-2009 ikasturterako Lanbide Heziketako Irakasleentzako Etengabeko Prestakuntza Ikastaroen antolakuntza eta garapenerako emandako dirulaguntzak aldatzen dituena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko martxoaren 11ko Aginduaren bidez (apirilaren 9ko EHAA) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin batera Lanbide Heziketako Irakasleentzako Etengabeko Prestakuntza Planaren garapenerako proiektuen aurkezpenean lankide izateko, erakunde publiko eta pribatuentzako dei egin zen.

Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordearen 2008ko ekainaren 17ko Ebazpenaren bidez, ikastaro horien antolakuntza eta garapenerako dirulaguntza batzuk ematen ziren. Ekainaren 17ko Ebazpen honen, bigarren artikuluan, jardueraren batean onartutako irakasle-kopurua deialdi bakoitzerako eskainitako postu kopurua baino txikiagoa bada, Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzak luzatu edo indargabetu ahal izango duela agertzen da. Jardueraren bat indargabetzen bada, horren ondorioz sortutako gastuak ordaindu ahal izango dira, behar bezala justifikatuta. Etengabeko Ikaskuntzako zuzendariaren 2008ko ekainaren 24ko Ebazpenaren 5. artikuluan ere, eskakizun nahikorik ez duten jarduerak, indargabetu ahal izango direla, agertzen da.

Ondoren, Etengabeko Ikaskuntzako zuzendariaren 2008ko urriaren 3ko (behin behinekoa) eta 2008ko urriaren 24ko (behin betikoa) Ebazpenen bidez, zeintzuetan ikastaroei dirulaguntzak ematea ebazten zen. Horrela, 2008ko ekainaren 24ko Ebazpenaren 5. artikuluaren arabera, eskatutako gutxieneko ikasle-kopurua ez zeukaten ikastaroak baliogabetzen ziren.

Hori guztiagatik, aipatutako arauen arabera eta aplikazio orokorreko gainerako arauen arabera, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Lanbide Heziketako Irakasleentzako Etengabeko Prestakuntza Ikastaroen antolakuntza eta garapenerako dirulaguntzak (2008-2009 ikasturtea) ematen zituen 2008ko ekainaren 17ko Ebazpena aldatzea, eranskinean agertzen diren elkarteei eta hor agertzen diren kopuruetan, emandako dirulaguntza gutxituz.

6308

RESOLUCIÓN de 27 de octubre de 2008, del Viceconsejero de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente, por la que se modifican las ayudas económicas concedidas para la organización y desarrollo de Cursos de Formación Permanente del Profesorado de Formación Profesional para el curso 2008-2009.

Mediante Orden de 11 de marzo de 2008 (BOPV de 9 de abril), del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, se convocó a entidades públicas y privadas que deseasen colaborar con el Departamento de Educación, Universidades e Investigación en la presentación de proyectos para el desarrollo del Plan de Formación Permanente del Profesorado de Formación Profesional.

La Resolución de 17 de junio de 2008, del Viceconsejero de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente, otorgaba una serie de Ayudas económicas para la organización y desarrollo de dichos cursos. En el artículo segundo de esta Resolución de 29 de mayo, se dice que si el número de profesores y profesoras admitidos en alguna de las actividades aprobadas no llega al número de plazas ofertadas en cada convocatoria, la Dirección de Aprendizaje Permanente podrá aplazarla o anularla. En los casos de anulación de actividades se podrían subvencionar los gastos originados, debidamente justificados. También en el artículo 5 de la Resolución de 24 de junio de 2008 de la Directora de Aprendizaje Permanente que convocaba actividades de formación, se dice que se podrán anular aquellos cursos para los que no hubiere un número suficiente de solicitudes.

Posteriormente, las Resoluciones de 3 de octubre de 2008 (provisional) y de 24 de octubre de 2008 (definitiva) de la Directora de Aprendizaje Permanente, resolvían sobre los cursos concretos a los que se concedían las ayudas, desestimando aquellos cursos que, en virtud de lo establecido en el artículo 5 de la Resolución de 24 de junio de 2007, no alcanzasen el número mínimo de alumnos requerido.

Por todo ello, de conformidad con las citadas normas y demás disposiciones de general aplicación,

RESUELVO:

Artículo único.– Modificar la Resolución de 17 de junio de 2008, por la que se otorgaban ayudas económicas para la organización y desarrollo de Cursos de Formación Permanente del Profesorado de Formación Profesional para el curso 2008-2009, minorando el importe de la ayuda concedida a las Entidades, en las cantidades que se recogen en el anexo.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen kontra gora jotzeko errekurtsoa ezar dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 27a.

Lanbide Heziketako eta
Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordea,
IÑAKI MUJIKA AIZPURUA.

DISPOSICIÓN FINAL

Contra esta Resolución se podrá interponer recurso de alzada en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, ante el Consejero de Educación, Universidades e Investigación.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de octubre de 2008.

El Viceconsejero de Formación Profesional
y Aprendizaje Permanente,
IÑAKI MUJIKA AIZPURUA.

ERANSKINA/*ANEXO*

Erakundea *Entidad*	Hasierako dirulaguntza (ekainaren 17ko Ebazpena) *Subvención inicial en euros (Resolución de 17 de junio)*	Amaierako dirulaguntza (urriaren 27ko Ebazpena) *Subvención final en euros (Resolución de 27 de octubre)*	Gutxipena (euroak) *Minoración (euros)*
Cebanc-Cdea	10.800,00	0,00	10.800,00
Consultec, S.L.	36.100,00	26.300,00	9.800,00
Dominion, T.I.	9.000,00	0,00	9.000,00
Fundación Formación Técnica Máquina Herramienta	37.529,97	24.725,26	12.804,71
Fundación Jesús Obrero	3.630,00	0,00	3.630,00
Ikaslan Bizkaia	31.563,20	28.819,80	2.743,40
Ikaslan Gipuzkoa	25.649,42	17.843,07	7.806,35
Ingema	7.900,00	3.650,00	4.250,00
Inutec Diseño, S.L.	12.000,00	6.000,00	6.000,00
Nazaret zentroa	2.305,00	0,00	2.305,00
Politeknika Ikastegia Txorierri	17.460,00	5.760,00	11.700,00
TOTAL	193.937,59	113.098,13	80.839,46